

IKASLEEN TXOKOA|50|

ZENBAKIA

Inmakulada ikastetxea



**Murriztu,
berrerabili eta
birziklatu / II**

JAVIER HERNÁNDEZ,
DANI PACHECO ETA
JUDITH QUEIJA



**Musika digitala,
eskaintza zabala / II**



Hernaniko Arraun Elkarteko kideak:

**«Gero eta jende
gehiago ari da
izena ematen» / IV**

IRATXE ALMANDOZ, IGOR HUEGUN,
ANDER MARTÍNEZ, ALEJANDRO ROMERO



**LAURA PACHECO:
«Nire bizitza
musika da» /III**

ANE ALBERRO, MAIALEN JORGE,
HAO HAO ZHAN ETA LOREN RÍOS

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

INMAKULADA IKASTETXEA

Murriztu, berrerabili eta birziklatu

BIRZIKLAPENA munduan modu ezberdinetan egiten da eta batzuk besteak baino eraginkorragoak dira.

Denok dakigu nola den birziklapena gure herrian. Atez atekoa, Hernaniz gain, beste Gipuzkoako eta Kataluniako herri eta hiri batzuetan ere egiten da. Europa mailan Italian, besteak beste, 1800 herri baino gehiagok egiten dute, eta munduko zenbait hiri handi batzuetan, Bruselak, Munich eta Viena esaterako, erabiltzen da ere bai.

Ingalaterran, berrerabilpena bultzatu nahian birziklatze onaren truke dirua (gehienez 149 euro) edo txartelak (denda batzuetan produktuen truke aldatzeko) jasotzen dituzte biztanleek.

Alemanian, Europako herrialde iraunkorrenetako bat, %70ko birziklapen tasa daukate. Hemen edukiontzia

etxeko atearen ondoan daude, bost motatakoak (beira, plastikoa, papera, organiko eta erre-fusa). Asteaz zehar garbitzaileek hondakinak hartzen dituzte birziklatze prozesua egiteko.

Zakar guztiak, ondo banandu ondoren, prozesu luze bat jarraitzen du. Kamioiek zakarrontzi handi eta itxi batzuetan sartzen dute, usaina ez nabarmentzeko. Momentu horretan, banaketa eta birziklapen prozesua hasten da. Zakar hori beste leku batera igarotzen da, eta hor lehenengo banaketa jasaten du: alde batean birziklatu daitekeen zaborra gelditzen da, eta beste aldean zakar organikoa. Azkeneko hau, metala garbitzeko sistema batera pasatzen da. Ondoren, hartidura gordetegi batera doa, eta handik, zabortege kontrolatu batera. Hemen, ongarririk organikoa sortzen da, "konpost" deiturikoa.



Erabiltzen dena erabiltzen dela, denak egokiak dira, mundua hobetzeko balio baitute.

EGILEAK

Javier Hernández, Dani Pacheco eta Judith Queija

Musika digitala, eskaintza zabala

Musikaren industriak aldaketa ugari nabaritu ditu azken urteotan. Gaur egun edonork lor dezake talde baten diskografia osoa Interneten "click" bat eginaz. Izan ere, musikako web orrietan sartuz gero, artista edo talde baten bideo-klip guztiak ahal dituzu ikusi edota deskargatu, bere fantaldeetan parte hartu, beren biografiak ikusi... Eskaintza amaigabea da.

Zerga berria

Lehen musikariek asko irabazi ahal zuten salmentekin, beren lanak edukitzeko aukera bakarra dendetan erostea zelako. Orain, aldiz, disko berriak web orrietan saltzen dituzte, erosleek erabakitzen duten preziora. Beraz, gauzak horrela, nondik lortuko dituzte artistek

beren lanaren etekinak?

Arazo honi konponbidea emateko, kanon digitala deiturikoa sortu zen duela urte batzuk. Ezarritako ordainsari honen ondorioz, CD edo DVDak erosteko garaian, ordaindutako prezioaren ehuneko batek artistaren jabetza intelektuala babestea du helburu, egin ditzakegun kopia pribatuen ondorioz sortzaileak jasotzen ez dituen etekinak orekatzeko.

Internetetik mugikorrera

Egun musika lortzeko bi modu daude nagusiki: CDak dendan erostea eta abestiak Internetetik deskargatzea. Biak aztertu ondoren, bakoitzaren alde onak eta txarrak nabarmendu ditugu.

Ohiko CDen abantaila nagusia grabatutako musikaren kalitatea da, oso onak izaten delako beti; gainera, lan gutxiago egin behar duzu abestiak sailkatzeko,

lan bakoitzarenak disko bakar batean datoz-eta.

Alde txarren artean, okerrera, dudarik gabe, prezioa da, CDak nahiko garestiak baitira, batez ere gazteontzat; bestalde, etxean toki asko hartzen dute gordetzeko eta kontu handiz ibili behar zara CDa jasotzean, ez marratzeko edota puskatzeko. Azkenik, musika entzuteko aparatua egokia eduki behar duzu ere bai, eta batzuetan kopiak egitean hainbat CD irakurgailuk ez dituzte irakurtzen, disko originalak bakarrik onartzen dituztelako.

Internetetik deskargatutako artxiboetan ere alde onak zein txarrak aurkitu ditugu. Abantailak: ez dute toki fisikorik hartzen; dohainik jaso ditzakezu zenbait programa erabiliz; eta edozer gauza gertatuz gero, abestia galdu baduzu, berriro ahal duzu deskargatu. Honez gain, musika digitala edozein

lekutan gorde daiteke, mugikorretan, USB batean, etab. Baina desabantailak ere badaude: askotan ez dakizu ziur zer ari zaren deskargatzen; abesti batek akatsak izan ditzake; web orrietan jartzen duen kalitatea batzuetan ez da oso fidagarria; eta askotan deskargatu baino lehen, abestia interesatzen zaizun formatuan dagoela egiaztatu behar duzu, gero zure irakurgailuan entzun ahal izateko.

Zenbait gazteri inkesta moduko bat egin diegu, nortzuk erosten dituzten CDak eta nortzuk deskargatzen duten musika jakiteko. Ia %100ak musika deskargatzen duela esan digu; %60k dio BETI deskargatzen duela; eta beste %40k talde edo artista baten CDa oso gogoko badu soilik, erosten duela onartu du.

Eta zuk zer egiten duzu? Zer deritzozu musika digitalari buruz?

HERNANIKO MUSIKA BANDA - LAURA PACHECO BANDAKIDEA!**«Nire bizitza musika da»****Noiztik dugu Hernanin Musika Banda?**

Joan den urtean Bandak 150. urteurrena ospatu zuen, urte hauetan garai desberdinak igaro ditu, gerra garaia, diktadura, trantsizioa, demokrazia... eta hau guztia jasan arren bere ibilbidea ona izan da eta oztopo guztiak gainditu ditu. Euskal Herriko musika bandarik zaharrenetarikoa dugula esan dezakegu.

Zenbat kide ditu Bandak?

45 musikarik inguru osatzen dute, gehienak hernaniarrak.

Hernanin egun esanguratsuetan kaletik topatzen dugu Banda. Zein egun berezi dira horiek, eta zer beste kontzertu egiten dituzue?

San Juanetan, adibidez, ekainaren 23an erronda egiten da eta *San Juan Zortzikoa* jotzen dugu; ekainaren 24an, txistulari bandarekin batera Diana egiten dugu, *Mendiriz Mendi* lanaren doinuaz. Gabonetan, bestalde, abenduaren 24an *Olentzero* obra entzun dezakezue eta Errege egunean, *Erregeak datoz*.

Horrez gain, hileroko kontzertuak egiten ditugu udaletxeko arkupeetan, eta baita kontzertu bereziak ere (pedagogikoak, zuzendari gonbidatu batekin, preludea...).

Laura, zuk zenbat urte daramazu Bandan? Eta urte askoan jarraitzea espero duzu?

14 urte nituela sartu nintzen Bandan. Hernaniko Musika Eskolan perkusioa ikasten ari nintzela Bandako entsaioetara joatea eskaini zidaten, eta harrezkero hor jarraitzen dut, jadanik 21 urte pasa dira.

Zenbat urte gehiago



Laura Pacheco (ezkerrean), Itsaso ahizparekin eta Joseba eta Eneko semeekin.

egongo naizen ez dakit, auskalo!

Zer aldaketa egon dira zu horzauendetik? Instrumentu berriak sartu al dira? Zertan hobetu da?

Hainbeste urtetan aldaketak egon dira, jakina. Esanguratsuenetakoa, zuzendari aldaketa izan genuen: Manolo Sagarnak 50 urte baino gehiago bandan egin ondoren, batuta utzi eta Zipri Otxandorenari pasa zion. Honek musika mota desberdinak ekarri zituen bandara, ez hobeak, desberdinak baizik.

Instrumentu aldetik ere

banda handitu da; perkusioan, esate baterako, instrumentala asko handitu da.

Zer da zuretzat Musika Bandan egotea?

Gauza asko ikasi ditut eta bizipen asko izan ditut bertan, beraz, nire bizitzan bandak badu bere zati garrantzitsua.

Zergatik interesatzen zaizu musika, eta noiztik?

Betidanik. Nire familia oso musikazalea izan da beti, garrantzi handia eman diote gure musika ikasketei. 7 urte nituela Hernaniko Musika Eskolan hasi nintzen,

nire anaia Robertorekin joaten nintzen; atzetik Jorgek eta gero Itsasok ere egin zituzten musika ikasketak, perkusioan eta saxofoian.

Eta familia musikala handitzen doa: nire koinatak ere musikariak dira, nire semea pianoarekin hasi da... Ez zait interesatuko, ba, musika? Gure etxean ez dago-eta beste lemarik!

Badakigu zure ahizpa eta anaiak Hernaniko Bandaren kideak direla. Gustatuko al litzaizuke zure semeek Bandan parte hartzea?

Jakina. Askok gustatuko li-

tzaidake hemendik urte batzuetara nire semeen kontzertuak ikustera joatea.

Orain bi umerekin, lehen bezainbeste denbora izaten al duzu musikari eskaintzeko?

Ez, ez diot hainbeste denbora dedikatzen, beste lehen-tasunak eta zereginak ditut orain. Hala ere, eskolako musika klaseekin jarraitzen dut, ikastetxeko abesbatzarekin, txikien musika tailer-rrarekin... Nire bizitza musika da.

EGILEAK
Ane Alberro, Maialen
Jorge, Hao Hao Zhan eta
Loren Ríos

50

zenbakia

ikasleen txokoa

HERNANIKO ARRAUN ELKARTEKO KIDEAK:

«Gero eta jende gehiago ari da izena ematen»

Astean zenbat egunetan entrenatzen duzue?

Hiru egunetan: astelehen, asteazken eta ostiraletan. Entrenamendu bakoitza ordu erdikoa izaten da. Gero, asteburuetan, estropadak egiten ditugu.

Zertan datza entrenamendua?

Astelehenetan fisikoa egiten dugu batez ere, hau da, gorputzaren indarra eta erresistentzia lantzen ditugu. Beste bi egunetan ibaira joaten gara arraun egitera.

Entrenadoreak ahalegin handia eskatzen al dizue?

Bai, entrenamenduan asko saiatzen gara eta nahiko esfortzu egiten dugu.

Zenbat taldekide sartzen dira batean?

Guk entrenatzen dugun bateletan lau taldekide eta patroia sartzen dira. Tamaina handiagoko batelak badaude ere, hamabi arraunlarientzakoak, adibidez.



Arraun elkartean oso giro ona daukate taldekide eta entrenatzaileen artean.

Neskak eta mutilak elkartzen al zarete talde berean?

Normalean ez gara elkartzen, salbuespen batzuetan izan ezik, entrenamenduan edo estropadetan norbait falta

bada, esaterako.

Taldekideekin eta entrenatzaileekin gustura al zaudete?

Bai, taldekide guztien artean oso ondo moldatzen gara eta

gustura gaude. Entrenatzaileekin ere harreman ona daukagu, oso jatorrak dira.

Jende asko animatzen al da?

Bai, gero eta jende gehiago

izena ematen ari da, arrauna orain lehen baino ezagunagoa egiten ari delako.

Estropadetan ikusleak egoten al dira?

Bai, oso giro ona egon ohi da eta jende asko etortzen da ondo pasatzen dutelako, guk bezalaxe.

Noraino joan zarete estropadak egitera?

Txapelketak irabazten baditugu, maila handiagoa lortzen dugu eta gero eta urrutiago joaten gara, Santandereraino adibidez.

Zein da zuentzat arraun talderik onena?

Guretzat talderik onena Kaiku da, txapelketa asko irabazi dutelako eta taldekideek elkar-ulertze handia dutelako.

EGILEAK

Iratxe Almandoz, Igor Huegun, Ander Martínez, Alejandro Romero

Ikasleen Txokoa 50 zk. - INMAKULADA IKASTETXEA

EGILEAK

